



**375/2020 Ebazpena, urriaren 13koa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agindu baita argitaratu behar direla Osakidetzaren web-orrian 4 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak (2018ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda**

Osakidetzako zuzendari nagusiak maiatzaren 28an emandako 1135/2015 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak. (EHAA, 102 zk., 2015eko ekainaren 3).

2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena uztailaren 1eko 263/2020 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren Osakidetzaren web-orrian 4 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak (2018ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Aldi baterako kontrataziorako 2018ko 4 lehentasuneko behin betiko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Zerrenda horiek 2020ko urriaren 14tik aurrera egongo dira indarrean.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a

 Osakidetza  
María Pilar Uriarte Brizuela  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: María Pilar Uriarte Brizuela

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD